

Irati Lejarraga eta Leire Jauregibeitiaren spotak irabazi du Euspot 2015 lehiaketa

2015/05/08


Atzo osteguna, hilak 7, Aretxabaletako Arkupe Kultur-etxean egindako sari banaketa ekitalaldian, Irati Lejarraga eta Leire Jauregibeitia zornotzarrek eraman zuten Euspot 2015 lehiaketaren sari nagusia. MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen lan onenaren saria, aldiz, Beñat Galfarsoro, Xabi Goxentzia, Kerman Garralda eta Arkaitz Garcia Ikus-entzunezko Komuniakazioa graduko ikasleek irabazi zuten. Gaztetxoaren saria, ostera, Arizmendi Ikastolako Mikel Zumaldek, Asier Berezibark, Ander Beitialarringoiak eta Lander Mediavillak irabazi zuten. Bukatzeko, ikuslearen saria Paul Arzanegi, Ana Alberdi, Irene Arine eta Mikel Diaz MONDRAGON UNIBERTSITATEKO Ikus-entzunezko Komuniakazioa graduko ikasleek irabazi zuten. Euspot lehiaketa antolatzen dute elkarrekin Aretxabaletako Udalak, Arteman Komunikazioak eta MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak.

Sari nagusia: "Errespetuaren bidea".

- **Egileak:** Irati Lejarraga eta Leire Jauregibeitia.
- **Herria:** Amorebieta-Etxano.



Irabazle guztiak taula gainean.



MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen saria: "Ez ehiztari, ez harrapakin".

- **Egileak:** Beñat Galfarsoro, Xabi Goxentzia, Kerman Garralda eta Arkaitz Garcia. (Ikus-entzunezko Komunikazioko 2. mailako ikasleak).



-

Gaztetxoeren saria (14-18 urte): “Berpiztu bizikleta”.

- **Egileak:** Mikel Zumalde, Asier Berezibar, Ander Beitialarriegoia eta Lander Mediavilla. (Arizmendi Ikastolako ikasleak).
- **Herria:** Aretxabaleta.



Publikoaren saria: “Ardurak ez du inozente izan”.

- **Egileak:** Paul Arzanegi, Ana Alberdi, Irene Arin eta Mikel Diaz. (Ikus-entzunezko Komunikazioko 2. mailako ikasleak).

